

BALIO PROPOSAMENA

Zabalduz doan bidegorri sareari beste bat amaitu berritan gehituko zaio datozen hilabeteetan; Urola ibaiaren ibilbide osoa jarraituko duena. Legazpi, Urretxu-Zumarraga, Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Aizarnazabal eta Zumaia lotuko ditu bidegorri honek. Edo bestela esanda, Mirandaolako burdinola, Loiolako basilika, Urola Trenaren museoa eta Zumaiaiko Geoparketa besteak beste. Hortaz, zergatik ez baliatu aukera honetaz modu jasangarri batean?

Paisaiak, ondarea eta kirola uztartuz, Urola ibaiko bidegorria ardatz hartuta eskualdea bizikletaz ezagutzeko aukerak eskaintzera gatoz **Urola Greenway** proiektuarekin. Zerbitzu desberdinak eskainiko ditugu horretarako:

Batetik, **bizikleten alokairua** eskainiko dugu; bai normalak (24 hatzbetetik goragoko neurriko gurpilak dituztenak) eta baita elektrikoak ere. Halakorik ez izatea ez da arazoa izango bailara ezagutu nahi dutenentzat, eta bizikleta duinak dituztenek ere ez dute beraien bizilekutik garraiatu beharrik izango. Honetarako, webgunearen bidez edo lokalean aurrez-aurre erreserbatu ahal izango dituzte bizikletak; unean bertan edota aldeztuetatik. Eskola garaian, astean zehar batez ere ikasle-taldeak izango ditugula bezero aurreikusten dugu, eta asteburuetan berriz, turistak. Eskolatako oporraldietan berriz, bezerogai nagusiak udalekuetako haur-taldeak, eta turistak izango dira. Inklusibotasuna bermatzeko, haurrak edota ezgaitasun fisikoak dituztenek ere bidez gozatu ahal izateko erremolke-gurdiak ere izango ditugu.

Aurrekoaren osagarri gisa edo baita beren bizikletatan datoztenentzat ere, **bisita gidatuak** ere eskainiko ditugu; etapen kokalekuaren arabera geldialdi desberdinak izango dituztenak. Adibidez, tarte laburrenetatik hasita, bidea Azpeitian hasi eta Zumaian amaitzen dutenek Zumaiaiko Geoparkea bisitatuko dute amaieran, alderantziz egiten dutenek Urola Trenaren Museoa eta Loiolako

Basilika; eta Zestoan geldialdia egin nahi izanez gero Ekainberri Kobazuloa (ere) ezagutzeko aukera izango dute. Aukera luzeenen kasuan berriz, Legazpi edo Zumarraga-Urretxun goizean hasi eta arratsaldean ezagutu dezakete Zumaiaiko Geoparkea; eta geldialdi gehiago egin nahi izanez gero, alojamendu edota jateko aukera desberdinekin harremanetan jarriko gara beste hainbat esperientzia ere eskaintzeko. Garbi dagoena da, bidegorriak hainbat aukera eskaintzen dizkigula; eta hortaz, esperientziak eta bezeroen *feedback*ak erakutsiko digute zeintzuk diren hoberenak.

Bizikleten garraioa ere eskainiko dugu. Hainbat bisitarik baliteke ibilbidean joan-etorria egin nahi ez izatea; eta hala, joanaldia soilik egin nahi duten horiei garraiobide publikoak erabiltzea ahalbidetu eta bizikleta guk eramango diogu hasierako puntuko gure establezimendura. Zerbitzu berdina eskeiniko diegu bidea aurrera ez egitea erabaki dutenei ere, bizikletak gure puntuetan jasota.

Azkenik, **laguntza teknikoa eta babesa** ere eskainiko dugu. Bidean norbaitek bizikletarekin arazo teknikorik izanez gero ala ezbehar baten ondorioz laguntza behar izanez gero, ibilbidean zehar artatuko dugu.

Aipatutako zerbitzu guztietan, eta gure baloreekin koherente izanik, erabilitako baliabideetan jasangarritasun irizpideak bermatuko ditugu. Lehenik, elektrikoak diren bizikleten kasuan, plaka fotovoltaiakoen bidez elikatutako karga-puntuak izango ditugu; eta bestalde, bizikletak garraiatzeko eta ezustekoetan artatzeko erabiliko dugun ibilgailua bera ere elektrikoa izango da, erregai fosilen erabilera ahalbeste murriztuz.

Langileei dagokienean, karbono aztarna murriztu eta komunitateari ekarpena eginaz, kide guztiak bailarakoak izatea da gure asmoa, eta gure asebetetasuna lortzeko hainbat baliabide erabiliko ditugu: lanorduei eta ordutegiari dagokionean ahalbesteko malgutasuna, elkarri proposamenak egiteko asanbladak, helburuengatiko pizgarriak, e.a.

Hornitzaileak zein aliantzak aukeratzerakoan ere, noski, kontuan izan ditugu hauen gertutasuna; misioa, bisioa zein baloreak eta jasangarritasun irizpideak.

Laburbilduz, Urola ibaiaren ibilbide osoa gurutzatuko duen bidegorriak eskaintzen duen aukeraz baliatuz, bailara ezagutzeko aukera berri bat eskaintzeko sortu da *Urola Greenway*. Garraiobide jasangarriak erabiliz, kirola eginez eta modu etikoan arituaz bidaiatzea maite dugunontzat aukera berri bat eskaintzeko. Inguruan lehenak izanik proiektuaren balioan sinesten dugu, eta ongi joanez gero, etorkizunean antzeko ezaugarriak dituzten beste bideetara zabaldu gintezkeela aurreikusten dugu.

